

BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA SAILA

2051

AGINDUA, 2017ko apirilaren 10ekoa, Hezkuntzako sailburuarena, zeinaren bidez iragartzen baita Irale programaren 2017ko udako eta 2017-2018 ikasturteko ikastaroak eskaintzea eta, ikastaroak egiteko plazak esleitzeko prozedura ezartzea.

1994ko urtarrilaren 28ko Aginduaren bidez (1994-02-11ko EHAA) berritu zuen Hezkuntza Sailak Irale programa osoa, eta antolamendu-arau berriak ezarri zizkion. Agindu horrek araudi nagusia eskaini dio Irale programaren eguneroko jardunari, eta horren arabera antolatzen dira, gaur egun ere, programaren hainbat atal eta prozedura.

Apurka-apurka, beharizan berriak agertu dira EAEko eskola-munduan. Ondorioz, Irale programaren 1994ko moldaera hura beharizan berri horietara egokituz joan da hainbat xehetasunetan. Aldaketa xumeak edo oso xumeak izan dira egokitze-lan horietariko asko. Aldaketa horiek eta beste hainbat ez dira bat-batean egin, apurka-apurka baizik, eta, normalean, egoera berriaren ezaugarriak eta haien arabera lehentasun nagusiak kasuan kasuko solaskideekin eztabaidatuz, zehaztuz eta adostuz.

Irale programaren urteetako ibilbide oparoari esker, euskal hezkuntzan aurrerapauso handiak eman dira euskararen ezagutzaren eta erabileraren normalizazioan. Hala ere, urteak joan urteak etorri, behar berriak sortu dira irakasleen hezkuntza-gaitasunean izan den aldaketa tipologikoaren ondorioz, eta Iralek, laguntza zerbitzu den aldetik, irakasleen berariazko behar berri horiei ahalik eta ongien erantzun beharko die etorkizunean ere, orain arte egin duen bezalaxe.

2010eko uztailaren 6ko Dekretuak (2010-07-16ko EHAA) onartzen du Euskal Autonomia Erki-degoko unibertsitateaz kanpoko irakasle funtzionarioen lan-baldintzak arautzen dituen akordioa, eta, bertan jasotzen denez, oraindik badaude premiak euskararen eta euskarazko irakaskuntzan oraindik: besteak beste, hezkuntza-erronka berriei aurre egiteko material egokiak sortzea, eta euskaraz irakatsi eta eskolak euskaraz ematen dituzten irakasleak didaktikan gaitzea.

Horri guztiari aurre egiteko, hezkuntza-arloan identifikatutako premietara moldatu da urte haue-tan Irale programa, eta euskarazko irakaskuntzan kalitatezko euskara bermatzen duten alderdi didaktikoetan eta materialetan sakondu du.

Irale programa, prestakuntza-arloan eragile den aldetik, bete-betean lotzen zaio Heziberri 2020 egitasmoaren Hezkuntza Sistema Hobetzeko Planaren lehenengo ildo estrategikoari: irakasleen etengabeko prestakuntzari, hain zuzen ere. Irale programaren eskaintza nagusia goi-mailako ikastaroak dira, bai irakastorduz kanpokoak, bai irakastordu barnekoak. Nagusiki, ikastaro horiek izan dira programaren berrikuntza nagusia, eta, neurri batean, ikastetxeetan egiten diren berrikuntza-proiektuei eta bertako hezkuntza-eredu pedagogikoei erantzuteko baliagarri izan daitezke. Beraz, Irale programaren helburuak, neurri handi batean, horretara bideratzen dira.

Hori guztia dela eta, hau

XEDATZEN DUT:

1. artikulua.– Xedea.

Agindu honen xedea da Irale programaren 2017ko udako eta 2017-2018 ikasturteko ikastaroak eskaintzea, bai irakastorduz kanpokoak, bai irakastordu barnekoak, eta, ikastarook egiteko plazak

lehia-araubidean esleitzeko prozedura ezartzea. Deialdi hau ikastaro horiek egin nahi dituzten unibertsitateaz kanpoko irakaskuntza arautuko ikastetxe publiko eta ikastetxe pribatuetako langileei bideratua dago (4. artikuluan jasotzen dira).

2. artikulua.– Irale programaren helburuak.

- a) Oraindik euskaldundu gabe dauden irakasleak euskalduntzea.
- b) Euskaldundutako irakasleen euskara-gaitasuna hobetzea.
- c) Euskarazko ikasmaterial berrien hizkuntza-kalitatea bermatzea.
- d) Curriculumaren euskal dimentsioa irakasleen artean zabaltzea.
- e) Euskaldundutako irakasleak hizkuntzaren didaktikan eta metodologietan gaitzea, ikasleen hizkuntza-gaitasunak hobetzearren.

3. artikulua.– Eskaintzen diren ikastaroak.

1.– Ikastaroak lanorduetan nahiz lanorduz kanpo eskaintzen dira (I. eranskina). Hau da ikastaro bakoitzeko plaza-kopurua:

a) Irakastordu barneko ikastaroak:

1. R300 ikastaroa	350 plaza
2. R400 ikastaroa	70 plaza
3. R600 ikastaroa	210 plaza
4. R800 ikastaroa	60 plaza
5. U2 ikastaroa	50 plaza
6. U3 ikastaroa	70 plaza
7. 3000 ikastaroa	40 plaza
8. 4000 ikastaroa	50 plaza
9. 5000 ikastaroa	60 plaza

b) Irakastorduz kanpoko ikastaroak:

1. A ikastaroak	150 plaza
2. E ikastaroak	200 plaza
3. H ikastaroak	2.500 plaza
4. I ikastaroak	1.200 plaza
5. F ikastaroak	300 plaza
6. Q ikastaroak	150 plaza

Ikastaro batean bete gabe geratzen diren plazek eskaera eskaintza baino handiagoa gertatu den ikastaroetako plazak emendatuko dituzte. Horretarako, arau hauek beteko dira:

- a) U, 3000, 4000 eta 5000 ikastaroetako plaza hutsek R ikastaroari esleituak emendatuko dituzte.

2017ko apirilaren 24a, astelehena

b) R ikastaroren bateko plaza hutsek gainerako R ikastaroentzako esleitutako plazak emendatuko dituzte. Plazen emendatze hori lurralde historikoen artean ere gerta daiteke.

c) Dena dela, 2017ko aurrekontuetan kreditu egokia eta nahikoa egotearen mende dago irakas-torduetatik kanpoko plaza-kopurua.

2.– II. eranskinean jasotzen dira ikastaroak eta haien ezaugarriak.

3.– I. eranskinean jasotzen da ikastaro bakoitza nori bideratua dagoen.

4. artikulua.– Ikastaroen hartzaileak.

Deialdi honetan jasotzen diren baldintzak eta eskakizunak betez gero, orokorrak edo ikastaroari berariaz dagozkionak, talde hauen parte diren ikasketari-nahiek eska ditzakete ikastaroak, zeinak I. eranskinean «X» batez zehazten baitira talde bakoitzarentzat:

a) Ikastetxe publikoetako irakasleak eta hezkuntza bereziko lan-legepeko hezitzaileak.

b) Ikastetxe pribatuetako irakasleak, hezkuntza bereziko lan-legepeko hezitzaileak eta 0-3 bitarteko irakasle edo hezitzaileak.

c) Hezkuntza Saileko Hezkuntza Ikuskaritzako eta irakaskuntzaren laguntza-zerbitzuetako langileak.

d) Haurreskolak Partzuergoko irakasle eta hezitzaileak.

5. artikulua.– Parte hartzeko eskakizunak.

1.– Ikastaro horiek egin nahi dituenak, I. eranskinean ikastaro bakoitzerako adierazitako kolektibokoa izateaz gain, 2016-2017 ikasturtean, deialdi honetako eskabide-epea ireki baino lehen, gutxienez egun batez lan egindakoa izan behar du eskatzaileak. Lan hori bat etorri beharko da deialdi honetan parte hartzen duen langileen kolektiboari esleitutako lanarekin.

2.– Irakastordu barneko ikastaroak egiteko (U2, U3, 3000, 4000, 5000, R300, R400, R600 eta R800), hauek ere behar izango dira:

a) Kasuaren arabera, ikastetxeko, laguntza zerbitzuko edo Hezkuntza Ikuskaritzako zuzendaritzaren baimena izatea.

b) Bitarteko langileen kasuan, ikasturte osorako izendatua izatea.

3.– R ikastaroak egiteko, eskakizun hauek bete beharko dira, 1. eta 2. puntuetan zehaztuz gain:

a) Aurretik R ikastaro bera ez egin izana.

b) Egiaztatua izatea HE2, EGA edo baliokidea, edo enplegu publikorako hautaketa-eta betetze-prozeduretarako apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuan aurreikusitako salbuste-egoera.

c) R400 ikastarorako, ikastaroan garatu beharreko proiektuaren egitasmo-txosten labur bat aurkeztu beharko da Hezkuntza Ordezkaritzan, banaka edo taldean. Egitasmo-txosten labur hori prestatu ahal izateko, Iralek horrexetarako diseinatutako gida eskuratu ahal izango da beraren web-orrian (www.irale.hezkuntza.net). 2017-05-26 da egitasmo-txostena aurkezteko azken eguna. R400 ikastaroko proiektua egitean, beste egile batzuen testuak, irudiak eta beste erabiltzeko asmoa badu ikasketariak, berak izango du dagozkion baimenak eskuratzeko ardura.

4.– U eta 3000, 4000 eta 5000 ikastaroak egiteko, eskakizun hauek bete beharko dira, 1. eta 2. puntuetan zehaztuz gain:

- a) Ez gainditzea hurrengo artikuluan gehieneko bezala ezarritako ordutegiaren liberazio-epeak.
- b) U2 ikastarorako, beharrezkoa izango da, gainera, 2017an gehienez 55 urte betetzea eta III. eranskinean aipatutako sarrera-proba gainditzea.
- c) U3 ikastarorako, beharrezkoa izango da egiaztatua izatea HE1 edo baliokidea, edo, enplegu publikorako hautaketa- eta betetze-prozeduretarako apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuan aurreikusitako salbueste-egoera. Eta U3 ikastarora zuzenean sartzeko (ez U2 ikastarotik etorruta), 2017an gehienez 57 urte betetzea.
- d) 3000 ikastarorako, beharrezkoa izango da 2017an gehienez 55 urte betetzea eta III. eranskinean aipatzen den sarrera-proba gainditzea.
- e) 4000 ikastarorako, beharrezkoa izango da 2017an gehienez 55 urte betetzea. Gainera, Hezkuntza Bereziko hezitzaileek egiaztatu beharko dute HE1 edo baliokidea, edo enplegu publikorako hautaketa- eta betetze-prozeduretarako apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuan aurreikusitako salbueste-egoera.
- f) 5000 ikastarorako, beharrezkoa izango da 2017an gehienez 57 urte betetzea eta egiaztatua izatea HE1 edo baliokidea, edo enplegu publikorako hautaketa- eta betetze-prozeduretarako apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuan aurreikusitako salbueste-egoera.

5.– Irakastorduz kanpoko F, H, I eta Q ikastaroak egiteko, 1. atalean zehaztuaz gain, beharrezkoa izango da egiaztatua izatea HE2, EGA edo baliokidea, edo enplegu publikorako hautaketa- eta betetze-prozeduretarako apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuan aurreikusitako salbueste-egoera.

6. artikulua.– Ordutegiaren gehieneko liberazio-aldiak U2, U3, 3000, 4000 eta 5000 ikastaroetan.

1.– Irakastordu barnean eskainitako ikastaro hauetan parte hartzeko eskatzaileak ez ditu agortuak izango jarraian zehazten diren ordutegiaren gehieneko liberazio-aldiak:

- a) Ikastetxe publikoetako irakasle finkoek 3 urte izango dute guztira: haietatik gehienez 2 urte HE1 lortzeko, eta gehienez 2 urte HE2 lortzeko.
- b) Ikastetxe publikoetako bitarteko irakasleek 1,5 urte izango dute guztira: haietatik gehienez 0,5 urte HE1 lortzeko, eta gehienez urtebete HE2 lortzeko.
- c) Ikastetxe publikoetako Hezkuntza Bereziko lan-kontratudun hezitzaile finkoek 3 urte izango dute guztira, salbu HLEA badute.

– Guztizko 3 urte horietarik, gehienez 2 urte HE1 lortzeko, eta gehienez 2 urte HLEA edo HE2 lortzeko.

– HLEA izanez gero, gehienez urtebete izango dute HE2 eskuratzeko.

d) Ikastetxe pribatuetako irakasle finkoek 2 urte izango dute HE2 eskuratzeko.

7. artikulua.– Ikastaroak non emango diren.

1.– Toki hauetan emango dira irakastordu barneko ikastaroak:

- a) U2, 3000 eta 4000 ikastaroak HABEK izendatzen dituen ikasketa-elkarteetan emango dira.

b) U3 ikastaroa Iraleren irakastegietan emango da, taldeak sortzen badira, betiere. Talderik sortzen ez bada, HABEk izendatzen dituen ikasketa-elkarteetan emango da.

c) 5000 ikastaroa U3 ikastaroarekin batera emango da, baldin eta azken horretan plaza librerik bada. Bestela, HABEk izendatzen dituen ikasketa-elkarteetan emango da.

d) R ikastaroak Iraleren Donostia, Eibar, Bilbo (Dolaretxe eta Artazugoiko) eta Gasteizko irakastegietan emango dira.

2.– Toki hauetan emango dira irakastorduz kanpoko ikastaroak:

a) A eta E ikastaroak Hezkuntza Sailak baimendutako ikasketa-elkarteetan emango dira.

b) F, H, I eta Q ikastaroak Hezkuntza Sailak baimendutako ikasketa-elkarteetan emango dira. Hala ere, baldin eta ikasketariren batek ikastaroa lanlekuan egin nahi badu, eskabide hori egin ahal izango dio ikasketa-elkarteari.

8. artikulua.– Eskabideak aurkeztea.

1.– Baliabide elektronikoen bidez aurkeztu eta izapidetuko dira eskabideak.

2.– Eskabideak aurkezteko epea 15 egunekoa izango da, agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunetik aurrera; helbide honetan aurkeztuko dira:

www.irakasle.eus > irakaslegunea > Administrazio-izapideak > IRALE ikastaroak 2017-2018.

3.– Irakastorduz kanpoko goi-mailako ikastaroetan (H, I, F eta Q), 2017-2018 ikasturtea hasi eta gero, irakastorduz kanpoko ikastaroetan antolatutako taldeetan parte hartu ahal izango dute interesdunek, baldin eta plazarik bada, betiere. Kasu horretan, ikasketari-nahiak eskabide-orria behar bezala beteta aurkeztu beharko du dagokion lurralde-ordezkaritzan, ikastaroa hasi baino 15 egun lehenago.

9. artikulua.– Eskabideak zuzentzea.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, eskabidean edo harekin batera aurkeztutako dokumentazioan forma-akatsak edo omisioak atzeman ez gero (halakorik aurkeztu bada), interesdunari jakinaraziko zaio gehienez 10 egun balioduneko epea duela akatsa zuzendu edo falta den agiria ekartzeko. Ohartaraziko zaio, halaber, hala egin ezean, eskabidean atzera egin duela ulertuko dela, ebazpena aipatutako legearen 21. artikuluan aurreikusitako baldintzetan eman aurretik.

10. artikulua.– Prozeduran parte hartzeko eskabideak baztertzeko ebazpena.

1.– Hezkuntzako lurralde-ordezkarri bakoitzak ebazpena emango du prozeduran baztertu diren eskabideen zerrenda ontzat emateko; bertan adieraziko du, halaber, eskabidea ze ikastarotarako baztertu den eta zein diren baztertzeko arrazoi zehatzak, eskakizunak ez betetzeak edo eskabidea behar bezala ez aurkezteak eraginda.

Epean aurkeztu diren eta eskabide onartu gabeen zerrendan agertzen ez diren eskabideak prozeduran onartu direla ulertuko da.

2.– Hezkuntza Sailaren web-orrian argitaratuko da prozeduran parte hartzeko onartu ez diren eskabideen zerrenda (www.hezkuntza.ejgv.euskadi.eus), data hauetan:

a) A, E, F, H, I eta Q ikastaroak egiteko, 2017-05-19.

2017ko apirilaren 24a, astelehena

b) Karrerako funtzionarioek eta ikastetxe pribatuetako irakasleek U eta R ikastaroak egiteko, 2017/06/19.

c) Karrerako funtzionarioek eta ikastetxe pribatuetako irakasleek 3000, 4000 eta 5000 ikastaroak egiteko, 2017-10-06.

d) Bitarteko funtzionarioek U ikastaroak eta R ikastaroetako lehenengo txanda egiteko, 2017-06-19.

e) Bitarteko funtzionarioek R ikastaroetako bigarren txanda eta 3000, 4000 eta 5000 ikastaroak egiteko, 2017-10-06.

3.– Prozeduran ez onartua izatearen aurka, gora jotzeko errekurtsioa aurkez dakioke Hezkuntzako sailburuari, hilabeteko epean, ez onartzeko ebazpenaren argitalpena jakinarazten den egunetik hasita.

11. artikulua.– Plazak esleitzeko irizpideak.

1.– R ikastaroetako plazak esleitzean, arau hauei jarraituko zaie:

a) Inori ezingo zaio esleitu R ikastaro bat baino gehiago.

b) Plazak ordena honetan esleituko dira: R800, R400, R600 eta, azkenik, R300.

c) Ikastaro bakoitzean, lehentasunezko irizpide hauen arabera egingo da esleipena, ordena honetan:

i) Euskarazko eskolak edo eskolak euskaraz ematen dituztenak.

ii) Eskolak gaztelaniaz edo atzerriko hizkuntza batean ematen dituztenak.

iii) R ikastaro gutxiago egin dituztenak.

iv) Ondoren, ordena honetan esleituko dira 2017an duten adinaren arabera: 56 urte edo gutxiago, 57 urte, 58 urte eta horrela ondoz ondo, plazak agortu arte.

v) HE2, EGA edo baliokidea, edo enplegu publikorako hautaketa- eta betetze-prozeduretarako apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuan aurreikusitako salbueste-egoera lehenago lortu izana lehentsiko da.

d) R400 ikastaroan, aurreko c) hizkian adierazitako irizpideak baino lehen, lehentasunezko irizpide hauek aplikatuko dira, zerrendatzen diren ordenan:

i) Lanbide Heziketa.

ii) Batxilergoan eta DBHn, euskarazko material gutxi duten irakasgaiak.

iii) Euskal kulturarekin lotura duten eskola-materialak.

Irakasgai eta arlo bakoitzean, egitasmo-txostenaren balorazioan lortutako puntuazio onenaren hurrenkerari jarraikiz esleituko dira plazak.

Hezkuntzako web-orrian argitaratuko da premia handiena duten arloen zerrenda (hezkuntza.ejgv.euskadi.eus).

Lehentasuna emango zaie mintegietako proiektuei (eta proiektu horiek garatzeko taldeei).

2017ko apirilaren 24a, astelehena

2.– U ikastaroetako plazak eta 3000, 4000 eta 5000 ikastaroetakoak esleitzean, arau hauei jarraituko zaie:

a) Lehenik, aurreko ikasturtean U2 ikastaroa egin dutenei esleituko zaizkie U3 eta U2 ikastaroetako plazak.

b) Bigarrenik, U3 eta U2 ikastaroetarako zuzeneko sarbideak esleituko dira, ordena horretan.

3.– Eskabideen aurkezte-ordenaren arabera esleituko dira gainerako ikastaroen plazak, harik eta dauden plazak amaitu arte.

12. artikulua.– R400 ikastarorako egitasmo-txostenaren balorazioa.

1.– R400 ikastarorako plaza-eskabideekin aurkeztu behar diren egitasmo-txostenak, 0 eta 10 puntu artean baloratuko ditu artikulua honen 3. zenbakian jasotzen den Balorazio Batzordeak. Baremazio-atal bakoitzean gehieneko puntuazioaren erdia gutxienez eskuratu duten egitasmo-txostenak soilik onartuko dira.

2.– Irizpide eta baremo hauen arabera emango ditu puntuak batzorde horrek:

a) Hizkuntzaren gutxienerako kalitatea (zuzentasuna, egokitasuna...): 2 puntu.

b) Lanaren deskripzioaren zehaztasuna: 3 puntu.

c) Egitasmoaren aplikagarritasuna: irakas-sistemaren curriculumeko beharrei aurrez aurre erantzuten dien ala ez: 3 puntu.

d) Egitasmoaren egingarritasuna: ikastaroak irauten duen bitartean, egingarria den ala ez: 1 puntu.

e) Egitasmoaren izaera: egitasmo hori bakarka edo taldean egitekoa den, txanda bakarrerako egitasmoa den edo proiektio luzeagokoa eta IKTen erabilera indartzen duen ala ez: 1 puntu.

3.– Honela osatuko da Balorazio Batzordea:

– Batzordeburua: Euskara Zerbitzuko arduraduna edo haren ordezkaria.

– Irakasle bat Iraleren irakaskuntza-zentro bakoitzetik.

– Idazkaria: Euskara Zerbitzuko Irale programaren arduraduna.

13. artikulua.– Plazen behin-behineko esleipen-ebazpena.

1.– Hezkuntzako lurralde-ordezkarri bakoitzak ebazpena emango du ikastaro bakoitzeko plazen behin-behineko esleipen-zerrendak ontzat emateko.

Ebazpen horretan berariaz jasoko da ikastaro osorako izendapena lortzearen mende dagoela bitarteko funtzionarioei plazak esleitzea.

2.– Zerrendak Hezkuntza Sailaren web-orrian argitaratuko dira (www.hezkuntza.ejgv.euskadi.eus), data hauetan:

a) A, E, F, H, I eta Q ikastaroak egiteko, 2017-05-19.

b) Karrerako funtzionarioek eta ikastetxe pribatuetako irakasleek U eta R ikastaroak egiteko, 2017-06-19.

2017ko apirilaren 24a, astelehena

c) Karrerako funtzionarioek eta ikastetxe pribatuetako irakasleek 3000, 4000 eta 5000 ikastaroak egiteko, 2017-10-06.

d) Bitarteko funtzionarioek U ikastaroak eta R ikastaroetako lehenengo txanda egiteko, 2017-06-19.

e) Bitarteko funtzionarioek R ikastaroetako bigarren txanda eta 3000, 4000 eta 5000 ikastaroak egiteko, 2017-10-06.

3.– Ebazpen honen aurka, erreklamazioa aurkeztu ahal izango dute interesdunek, argitaratzen denetik lau eguneko epean.

Idatziz aurkeztuko zaizkio erreklamazioak Hezkuntza Berriztatzeko Lurralde Burutzari, posta elektronikoz nahiz ohiko postaz.

14. artikulua.– Esleitutako plazari behin-behinean uko egitea.

1.– Aurreko artikuluan zehaztutako epean, plazaren behin-behineko esleipena lortu dutenek uko egin diezaiokezte plazari.

2.– Idatziz aurkeztuko zaio uko-egitea Hezkuntza Berriztatzeko Lurralde Burutzari, posta elektronikoz nahiz ohiko postaz.

15. artikulua.– Plazen behin betiko esleipen-ebazpena eta erreserben zerrenda.

1.– Hezkuntzako lurralde-ordezkarri bakoitzak ebazpena emango du ikastaro bakoitzeko plazen behin betiko esleipen-zerrendak ontzat emateko.

Ebazpen horretan berariaz jasoko da ikastaro osorako izendapena lortzearen mende dagoela bitarteko funtzionarioei plazak esleitzea.

2.– Zerrendak Hezkuntza Sailaren web-orrian argitaratuko dira (www.hezkuntza.ejgv.euskadi.eus), data hauetan:

a) A, E, F, H, I eta Q ikastaroak egiteko, 2017-06-02.

b) Karrerako funtzionarioek eta ikastetxe pribatuetako irakasleek U eta R ikastaroak egiteko, 2017-06-29.

c) Karrerako funtzionarioek eta ikastetxe pribatuetako irakasleek 3000, 4000 eta 5000 ikastaroak egiteko, 2017-10-13.

d) Bitarteko funtzionarioek U ikastaroak eta R ikastaroetako lehenengo txanda egiteko, 2017-06-29

e) Bitarteko funtzionarioek R ikastaroetako bigarren txanda eta 3000, 4000 eta 5000 ikastaroak egiteko, 2017-10-13.

3.– Ebazpen horrek barne hartuko du ikastaro bakoitzerako zerrenden onarpena. Baldin eta, ikastaroa hasi baino lehen, plazaren esleipena lortu duen ikasketarigai batek baja emanaz gero, erreserba-zerrendarekin esleituko da plaza hori.

4.– Behin betiko ebazpenaren aurka, interesdunek gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu ahal izango diote Hezkuntzako sailburuordeari, ebazpenok argitaratu eta hilabeteko epean.

16. artikulua.– HABEk aukeratutako ikasketa-elkarteetan emandako ikastaroetan matrikulatzea.

1.– Matrikula, jarraian adierazitakoaren arabera egingo dute ikasketa-elkarte batean emango den ikastaroan plaza eskuratu dutenek:

a) Hautatutako ikastaroaren arabera, plaza lortu dutenek www.irakasle.eus web-orrian eskura izango dute ikasketa-elkarteen zerrenda, bertatik aukeratu ahal izateko.

b) Jarraian zehazten den egunetik aurrera, plaza esleitu zaienei matrikula-fitxa bana bidaliko dio Hezkuntza Sailak, plaza lortu duen ikasketarigaiak, bidalketa horretan zehazten den epean, matrikula egin dezan ikasketa-elkartean:

i) Udako ikastaroetarako fitxa bidaltzea, 2017-06-12tik aurrera.

ii) Ikasturtean zehar egiteko ikastaroetarako fitxa bidaltzea, 2017-08-31tik aurrera.

c) Pertsona bakoitzak Hezkuntza Sailak emandako matrikula-fitxa aurkeztuko du aukeratutako ikasketa-elkartean. Onartzen badute, ikastetxe horretan matrikulatua geldituko da.

d) Baldin eta plaza lortu duen ikasketarigaiak, goian zehaztutako bidaltze-datatik bost eguneko epean, matrikula-fitxarik jasotzen ez badu, dagokion Hezkuntzako Ordezkaritzako Euskara Atalera jo beharko du.

17. artikulua.– A eta E ikastaroak, doakotasun-baldintzak, nahitaezko gutxienerako bertaratzea eta gutxienerako hori ez betetzearen ondorioak prezioa ordaintzean.

1.– Udako A eta E ikastaroetan, % 80koa da nahitaezko gutxienerako bertaratzea, eta, ikasturtean zehar egiten diren ikastaroetan, % 75ekoa. Justifikatutako bertaratze-faltak ez dira ez-bertaratze-tzat hartuko gutxienerako bertaratzea zenbatzeko.

2.– Nahitaezko gutxienerako bertaratzea betetzen bada, ikaslearentzat doan izango da ikastaroa egitea; halakorik badago, baita barnetegi-gastuen % 50 ere.

3.– Nahitaezko gutxienerako bertaratzea betetzen ez bada, ikastaroaren kostuaren % 50 ordaindu beharko du ikasleak, eta egonaldi-gastuen % 25, barnetegian denean. Ikasleari ordaintzea dagokion parte ikasle horrek parte hartzen duen Irale programako hurrengo A edo E ikastaroan ordaindu beharko du.

18. artikulua.– Gehieneko liberazio-aldiari eragiten dion ikastaroari uko egitea mediku-bajagatik.

1.– Zenbait ikastarotan, ikasketariak ordutegiaren gehieneko liberazio-aldiak ez gainditzearen mende dago parte-hartzea; bada, kasu horietan, mediku-bajagatik ikastaroari uko eginez gero ikastaroa gauzatzen ari den datetan, ikastaroaren esleipena ez da zenbatuko 6. artikuluan aipatzen den ordutegiaren gehieneko liberazio-aldiaren ondorioetarako.

2.– Aurreko 1. zenbakian xedatua aplikatzeak dakar arau hauek betetzea:

a) Interesdunak mediku-bajagatik uko-egite eskabidea aurkeztea bere lantokiari dagokion Lurralde Ordezkaritzako Hezkuntza Berrikuntzako Unitatean. Laneko bajaren mediku-agiriak erantsiko zaizkio eskabide horri.

b) Baja gertatzen den ikasturtean aurkeztu beharko da eskabidea, eta, betiere, amaierako eba-luaziorako zehaztutako eguna baino lehen edo, HE1 eta HE2 ikastaroen kasuan, azterketetarako zehaztutako eguna baino lehen.

3.– Ikastaroa esleitzeak ez dezan eraginik izan gehieneko liberazio-aldiaren zenbaketan, eskakizun hauek ere bete beharko dira:

a) Irale programaren barnean, behin soilik onartuko zaio pertsona bakoitzari ikastaroa ez zenbatzea gehieneko liberazio-aldiaren ondorioetarako.

b) Osasun Ikuskaritzak ontzat eman behar du mediku-baja.

c) Gehieneko liberazio-aldiaren ondorioetarako ikastaroa ez zenbatzeak berekin dakar hurrengo ikasturtean liberatua izateko lehentasuna galtzea.

d) U2 edo U3 ikastaroetan, baja-aldia 60 eta 109 irakastegun bitartekoa bada soilik eskatu ahal izango da urte erdiko liberazio-aldia ez zenbatzea. Baja-aldia gutxienez 110 irakastegunekoa bada, onartuko zaio ikastaro osoa ez zenbatzea, eta aukera emango zaio ikastaroa hurrengo deialdian egiteko.

e) 3000, 4000 eta 5000 ikastaroetan, baja-aldia gutxienez 30 irakastegunekoa izan beharko da ikastaroa ez zenbatzea onartzeko.

f) R ikastaroetan, baja-aldiak irakastegunen % 40 hartu beharko du ikastaroa ez zenbatzea onartzeko.

g) Sailak ez dio ez zenbatzea onartuko ikastaro amaieran dagokion maila edo hizkuntza-eskakizuna gainditu duen inori, nahiz eta ez zenbatua izateko eskakizun guztiak bete.

19. artikulua.– Ikastaro amaierako azterketak.

Jarraian zehazten diren azterketak egin beharko dituzte ikastaro hauetan onartu diren pertsonak, ikastaroa amaitu eta gero:

a) U2 eta 3000 ikastaroak amaituta, HE1eko azterketa egin beharko dute.

b) U3 eta 5000 ikastaroak amaituta, HE2ko edo HLEAko azterketa egin beharko dute.

c) 4000 ikastaroa amaituta, HLEAko azterketa egin beharko dute ikastetxe publikoetako Hezkuntza Bereziko lan-legepeko hezitzaileek.

20. artikulua.– Datuak babestea.

Deialdi honetako parte-hartzaileek baimena ematen dute deialdi hau izapidetzean jasotako datu pertsonalak tratatu eta argitaratzeko, Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoarekin eta Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legearekin bat etorriz. Datuok, bestalde, Irale izeneko 2. fitxategian sartuko dira, diru-laguntzen deialdi hau kudeatzeko eta deialdira biltzen direnei deialdiaren garapenaren berri emateko. Hezkuntza Berriztatze Zuzendaritza da fitxategi horren organo arduraduna. Sarbide-, zuzenketa-, ezabatze- eta aurkatze-eskubideak baliatzeko, Hezkuntza Berriztatze Zuzendaritzara jo beharko da, helbide honetan, hain zuzen: Donostia kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz.

Era berean, deialdi honetan parte hartzen duten pertsonak baimena ematen diote Hezkuntza Berriztatze Zuzendaritzari edozein erakunde publikotan frogatzeko aurkeztutako dokumentuak egiazkoak direla.

AZKEN XEDAPENETATIK LEHENENGOA

Agindu honen aurka, zeinak administrazio-bidea agortzen baitu, aukerako berraztertze errekurtoa aurkeztu ahalko zaio Hezkuntzako sailburuari hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko

2017ko apirilaren 24a, astelehena

Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik hasita; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahalko da Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian bi hilabeteke epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik hasita.

AZKEN XEDAPENETATIK BIGARRENA

Agindu hau EHAAan argitaratzen den egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2017ko apirilaren 10a.

Hezkuntzako sailburua,
CRISTINA URIARTE TOLEDO.

2017ko apirilaren 24a, astelehena

I. ERANSKINA

DEIALDIKO PARTAIDEAK ETA IKASTAROAK

NORENTZAT	IRAKASTORDU BARNEKO IKASTAROAK								
	U2	U3	3000	4000	5000	R300	R400	R600	R800
Herri- ikastetxeetako irakasle funtzionarioak, finkoak eta bitartekoak	X	X	X	X	X	X	X	X	X
Ikastetxe pribatuetako irakasle finkoak		X				X	X	X	X
Herri- ikastetxeetako Hezkuntza Bereziko lan-legepeko hezitzaile finkoak	X	X	X	X	X	X			

NORENTZAT	IRAKASTORDUZ KANPOKO IKASTAROAK					
	A	E	F	H	I	Q
Herri- ikastetxeetako irakasle funtzionarioak, finkoak, ez-finkoak eta bitartekoak	X	X	X	X	X	X
Ikastetxe pribatuetako irakasle finkoak eta ez-finkoak	X	X	X	X	X	X
Herri- ikastetxeetako Hezkuntza Bereziko lan-legepeko hezitzaile finkoak eta aldi batekoak	X	X		X		
Haurreskola Patzuergoko irakasleak eta hezitzaile finkoak	X	X		X		
Ikastetxe pribatuetako hezkuntza bereziko lan-legepeko hezitzaileak eta 0-3 bitarteko irakasle edo hezitzaileak	X	X		X		

2017ko apirilaren 24a, astelehena

II. ERANSKINA

IKASTARO MOTAK ETA HORIEN XEHETASUNAK

IRAKASTORDU BARNEKO IKASTAROAK

HE1, HE2 eta HLEA eskuratzeko ikastaro trinkoak				
Ikastaro mota	Definizioa	Egutegia	Ordutegia	Eskola-orduak
<u>U2</u>	HE1 lortzeko urte osoko ikastaroa	2017-09-06tik 2018-06-06ra	Goizez (5 ordu)	850
<u>U3</u>	HE2 lortzeko urte osoko ikastaroa	2017-09-06tik 2018-06-06ra	Goizez (5 ordu)	850
<u>3000</u>	HE1 lortzeko urte erdiko ikastaroa	2018-01-08tik 2018-06-06ra	Goizez (5 ordu)	475
<u>4000</u>	HLEA lortzeko urte erdiko ikastaroa	2018-01-08tik 2018-06-06ra	Goizez (5 ordu)	475
<u>5000</u>	HE2 lortzeko urte erdiko ikastaroa	2018-01-08tik 2018-06-06ra	Goizez (5 ordu)	475

R ikastaroak				
Ikastaro mota	Definizioa	Egutegia	Ordutegia	Eskola-orduak
<u>R300</u>	Irakasgaitasuna eta hizkuntza-gaitasuna sendotzeko ikastaroa	1. txanda: (Donostian, Eibarren, Gasteizen eta Bilbon) 2017-09-06tik 2017-12-22ra 2. txanda: (Donostian, Eibarren, Gasteizen eta Bilbon) 2018-01-08tik 2018-03-23ra	Goizez (5 ordu)	365
<u>R400</u>	Ikasmaterialak euskaraz prestatzeko ikastaro praktikoa	2017-09-06tik 2017-12-22ra (Donostian, Eibarren, Gasteizen eta Bilbon)	Goizez (5 ordu)	365
<u>R600</u>	Curriculumaren euskal dimentsioa: euskal kulturaren inguruko ikastaroa	1. txanda: (Donostian, Gasteizen eta Bilbon) 2017-09-06tik 2017-12-22ra 2. txanda: (Donostian, Eibarren, Gasteizen eta Bilbon) 2018-01-08tik 2018-03-23ra	Goizez (5 ordu)	365
<u>R800</u>	Hizkuntza-kompetentzia jardun didaktikoan	2018-01-08tik 2018-03-23ra (Donostian, Gasteizen eta Bilbon)	Goizez (5 ordu)	365

2017ko apirilaren 24a, astelehena

IRAKASTORDUZ KANPOKO IKASTAROAK

HE2, EGA EDO HIZKUNTZA AGIRI BALIOKIDE BATERA ARTEKO IKASTAROAK			
Ikastaro mota	Azalpena	Noiz	Barnetegian Bai/Ez
A	HE1erainoko ikastaroa	Uztailean	Ez
			Bai
		Abuztuan	Ez
			Bai
		Irailan	Ez
			Bai
		1. hiruhilekoan	
		2. hiruhilekoan	
		3. hiruhilekoan	
		Ikasturte osoan	
E	HE2 edo EGArainoko ikastaroa	Uztailean	Ez
			Bai
		Abuztuan	Ez
			Bai
		Irailan	Ez
			Bai
		1. hiruhilekoan	
		2. hiruhilekoan	
		3. hiruhilekoan	
		Ikasturte osoan	

2017ko apirilaren 24a, astelehena

H, F, I EDO Q IKASTAROAK		
Ikastaro mota	Azalpena	Noiz
H100	Hizkuntzaren zuzentasuna eta egokitasuna, hitzez edo idatziz. Euskaltzaindiaren batasun-arauak ortografian, lexikoan eta gramatikan. Irakurketa ozen zuzena, hitzen ebakera eta hitzarten doinuera zaindua.	1. hiruhilekoan
		2. hiruhilekoan
		3. hiruhilekoan
		Ikasturte osoan
H200	Goi-mailako hizkuntza-gaitasun praktikoa lantzea: eguneroko lan-esparruan euskara (ahoz zein idatziz) zuzen eta egoki erabiltzea.	1. hiruhilekoan
		2. hiruhilekoan
		3. hiruhilekoan
		Ikasturte osoan
H300	Itzulpen-tekniken ezagutze teorikoa eta gaitasun praktikoa. Ikastaroaren alde praktikoa batez ere Bigarren Hezkuntzako eskola-liburuen itzulpen-lanean oinarrituko da.	1. hiruhilekoan
		2. hiruhilekoan
		3. hiruhilekoan
		Ikasturte osoan
H401	Mintzamina, oro har.	1. hiruhilekoan
		2. hiruhilekoan
		3. hiruhilekoan
		Ikasturte osoan
H402	Lagunarteko hizkera.	1. hiruhilekoan
		2. hiruhilekoan
		3. hiruhilekoan
		Ikasturte osoan
H403	Jendaurreko hizkera jasoa.	1. hiruhilekoan
		2. hiruhilekoan
		3. hiruhilekoan
		Ikasturte osoan
H404	Euskal literatura.	1. hiruhilekoan
		2. hiruhilekoan
		3. hiruhilekoan
		Ikasturte osoan

2017ko apirilaren 24a, astelehena

H, F, I EDO Q IKASTAROAK		
Ikastaro mota	Azalpena	Noiz
H405	Ipuingintza. Kontalaritza.	1. hiruhilekoan
		2. hiruhilekoan
		3. hiruhilekoan
		Ikasturte osoan
H406	Euskal antzerkia. Kanta. Bertsolaritza. Dantza, Irratia. Euskal jolasak.	1. hiruhilekoan
		2. hiruhilekoan
		3. hiruhilekoan
		Ikasturte osoan
H407	Curriculumaren euskal dimentsioa; euskal kulturaren gaineko ikastaroa.	1. hiruhilekoan
		2. hiruhilekoan
		3. hiruhilekoan
		Ikasturte osoan
H408	Soziolinguistika: kontzeptu nagusiak.	1. hiruhilekoan
		2. hiruhilekoan
		3. hiruhilekoan
		Ikasturte osoan
H409	Soziolinguistika: etxe eta eskola bidezko hizkuntza-transmisioa.	1. hiruhilekoan
		2. hiruhilekoan
		3. hiruhilekoan
		Ikasturte osoan
H410	Soziolinguistika: <i>Taller d'Espai Lingüistic Personal</i> (TELP).	1. hiruhilekoan
		2. hiruhilekoan
		3. hiruhilekoan
		Ikasturte osoan
H411	Aniztasuna, Immigrazioa eta Hizkuntzak: eleaniztasunaren ikuspegitik, hizkuntzen arteko elkarbizitza aztertzea, lantzea eta garatzea.	1. hiruhilekoan
		2. hiruhilekoan
		3. hiruhilekoan
		Ikasturte osoan

2017ko apirilaren 24a, astelehena

H, F, I EDO Q IKASTAROAK		
Ikastaro mota	Azalpena	Noiz
H500	Informatika euskaraz.	1. hiruhilekoan
		2. hiruhilekoan
		3. hiruhilekoan
		Ikasturte osoan
F100	Giza eta gizarte-zientzien alorreko terminologia tekniko eta adierazpide bereziak lantzea. Norberaren jakintzagai zehatzari dagokion alfabetatze tekniko.	1. hiruhilekoan
		2. hiruhilekoan
		3. hiruhilekoan
		Ikasturte osoan
F200	Zientzia-tekniken alorreko terminologia tekniko eta adierazpide bereziak lantzea. Norberaren jakintzagai zehatzari dagokion alfabetatze tekniko.	1. hiruhilekoan
		2. hiruhilekoan
		3. hiruhilekoan
		Ikasturte osoan
I	Ikasleen gaitasun komunikatiboa helburu izanik, euskararen irakasbideak hobetzeko metodologia-ikastaroa.	1. hiruhilekoan
		2. hiruhilekoan
		3. hiruhilekoan
		Ikasturte osoan
Q	Euskalkiak: haien osaera eta testu hautatuak.	1. hiruhilekoan
		2. hiruhilekoan
		3. hiruhilekoan
		Ikasturte osoan

2017ko apirilaren 24a, astelehena

III. ERANSKINA**SARRERA-AZTERKETEN DATAK ETA LEKUAK****U2 egiteko**

TOKIA	EGUNA	HELBIDEA	ORDUA
BILBO	2017-05-11	Dolaretzeko IRALE Dolaretxe auzoa, 9. txaleta	16:00
DONOSTIA	2017-05-11	Donostiako IRALE Larratxo pasealekua 51-53	16:00
GASTEIZ	2017-05-11	Gasteizko IRALE Habana kalea z/g	16:00

3000 egiteko

TOKIA	EGUNA	HELBIDEA	ORDUA
BILBO	2017-09-14	Dolaretzeko IRALE Dolaretxe auzoa, 9. txaleta	16:00
DONOSTIA	2017-09-14	Donostiako IRALE Larratxo pasealekua 51-53	16:00
GASTEIZ	2017-09-14	Gasteizko IRALE Habana kalea z/g	16:00